

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJEN FEDERAZIOAREN

ESTATUTUAK

I. ATALBURUA: IZENA ETA DEFINIZIOA

1. ARTIKULUA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa beren borondatez bertan sartzea erabaki duten Toki Entitateek osatutako elkarte da, beren interesak babestu eta sustatzekoa, eta batez ere Toki Entitateen autonomia, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortua dagoena, babestekoa.

Udal eta Kontzejuen Federazioaren xedea da Nafarroako Toki Entitateen partehartzea Foru Komunitatearen bizitza instituzionalean historian zehar izan den bezain garrantzitsua izatea.

2. ARTIKULUA

Federazioa hura osatzen duten Toki Entitateen menpe dago eta alderdi eta erakunde politikoetatik at iharduten du.

3. ARTIKULUA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, laburki adierazia NUKF, iraupen mugagabea dauka eta hura desegiteko beharrezkoa izanen da Batzar Nagusiak horrela erabakitzea, Estatutu hauei jarraikiz eta Legeetan aurrikusitako kausak direla medio.

4. ARTIKULUA

NUKFK nortasun juridikoa eta iharduteko ahalmena dauzka, bere Estatutuetan eta Foru Komunitatean edo Estatuan indarra duten eta berari aplikatzen ahal zaizkion Legeetan ezarritako mugen barruan.

5. ARTIKULUA

Kasu bakoitzean komeni diren baliabideen bitartez, Federazioak lankidetzarako harremanak izan ahalko ditu Espainiako Estatuan Autonomi Elkarteetan esparruan osatzen diren antzeko elkarteekin edo bestelako edozein Erakunde Publiko edo Pribaturekin.

6. ARTIKULUA

NUKFK helburu berdintsuak dituzten nazioko edo nazioarteko elkarteei atxikitu edo haiekin lankidetzarako harremanak izan ahalko ditu.

Toki Entitate bat NUKFaren sartzek Espainiako Udal eta Probintzien Federazioan sartzea ekarriko du, Toki Entitate horrek kontrako erabakia hartzen ez badu edo atxikimendu hori ezinezkoa ez bada.

Bi elkarte horiei atxikitutako Toki Entitateentzat liskarrik sortuko balitz, NUKFaren Estatutuetan edo erabaki eta ebazpenetan ezarritakoak lehentasuna izanen du FEMParen aurretik.

7. ARTIKULUA

NUKFK Nafarroako Foru Komunitatean ihardunen du, bere helburuak babestu eta lortzeko beste lurralde batzuetan burutzen dituen iharduerak ezertan ukatu gabe.

II. ATALBURUA: HELBURUAK

8. ARTIKULUA

NUKFaren helburuak ondoko hauek dira:

- a) Toki Entitateen autonomia babestu eta sustatzea.
- b) Erakunde politiko eta administratiboen aurrean Toki Entitateen eta kolektibitateen interesen ordezkari izatea.
- c) Toki Entitateen bizitzan interesa duten afera eta arazoak ezagutzeko ikerketak sustatu eta burutzea.
- d) Nafarroako biztanleei Toki Entitateak ezagutzera eman eta haien partehartzea sustatzea.
- e) Toki Entitateek eskatu edo delegatzen dizkioten zerbitzuak eman eta kudeaketak burutzea, arlo horretan indarra duten arauetan ezarritakoarekin bat.
- f) Foru Komunitateko Toki Entitateen esparruan Europaren aldeko izpiritua garatu eta sendotzea, Toki Entitate guztien autonomia eta elkartasunean oinarrituz.
- g) Nafarroako udalen foru araubidea ezagutzera eman eta haren aplikazio osoa sustatzea, laguntza ematen horrela eginbehar hori duten Foru Erakundeei.

9. ARTIKULUA

NUKFk ezin izanzen ditu inola ere, aurreko artikuluan azaldutako helburuak interpretatuz, arau juridikoek Toki Entitate elkartuei esleitu dizkien eskumenak gutxitu.

10. ARTIKULUA

Xede horiek betetzeko, Federazioak:

- a) Behar diren egitura organiko eta langilegoa finkatuko ditu.
- b) Bide emanen du Toki Entitateen arloko gaiei buruzko informazioa elkartrukatzeko.
- c) Aholkularitza zerbitzuak osatuko ditu bere bazkideentzat.
- d) Bilera, hitzaldi, mintegi eta kongresuak antolatu eta haietan parte hartuko du.
- e) Botere publikoetara jo eta, hala behar denean, aholkulari edo proposatzaile gisa arituko da Toki Entitateak ukitzen dituzten legezko arauak formulatzerakoan.
- f) Legeak emateko udalek duten ekimena, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortzen dena, sustatuko du.
- g) Toki Entitateen interes orokorrak babesteko behar diren helegite eta egintzak burutuko ditu.
- h) Bere eskumeneko aferei buruzko informaziorako argitalpen eta dokumentuak sustatuko ditu, kontutan hartuz horretarako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialei buruz Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoa.
- i) Bere xedeak lortzearren, trafiko juridiko, ekonomiko eta merkataritzakoan parte hartuko du, esparru horietan arau juridikoetan debekatuta ez dauden iharduerak burutuz.

III. ATALBURUA: EGOITZA

11. ARTIKULUA

1.- Federazioak Iruñean du helbidea, Tuterakaleko 20 zenbakian, 3. solairuan. Batzorde exekutiboak helbidea aldi baterako aldatzea erabaki ahal izanen du, horren berri emanez Entitate eta pertsona interesatu guztiei eta aplikatzen zaizkion arauetan ezarritakoaren arabera behar diren guztiei.

2.- Federazioaren Organoak Nafarroako edozein Udal edo Kontzejutan osatu eta bildu ahalko dira.

IV. ATALBURUA: BAZKIDEAK

12. ARTIKULUA

1.- NUKFko kideak izan ahal dira haren xedeetan interesaturik dauden Nafar Toki Entitate guztiak.

2.- Entitate interesatuek beren organo eskudunaren bitartez hartuko dute atxikitzeko erabakia eta haren berri emanen diote Federazioko Idazkaritza Nagusiari.

13. ARTIKULUA

Bazkide izaera gauzatuko da atxikitzeko erabakia ailegatu ondoren, Batzorde Exekutiboak egiten duen lehenbiziko Bilkuran hura onartzen duenean.

14. ARTIKULUA

Federaziotik Toki Entitate bat ateratzeko beharrezkoa izanen da Entitateko Organo eskudunak erabaki hori hartzea, eta erabaki hori hartu den urteko ekitaldiaren azken egunean gauzatuko da.

15. ARTIKULUA

Federazioko bazkide izaera kendu ahalko zaio bi ekitalditako kuotak ordaindu gabe edo Federazioarekin horiek baino zor handiagoak dituen Toki Entitateari.

Bazkide izaera kentzea erabaki ahalko da Toki Entitateari hiru hilabeteko azken epe batean ordaintzeko eskatu eta bazkide izaeraren kentzearen abisu eman ondoren.

16. ARTIKULUA

Entitate elkartuek, beren ordezkarien bitartez, ondoko eskubide hauek izanen dituzte:

- a) Federazioak antolatzen dituen iharduera guztietan parte hartzekoa.
- b) Batzar Nagusietan hitza eta botoa izatekoa.
- c) Batzorde Exekutiboko eta gainerako gobernu-organoetako partaide izateko aukera izatekoa, Estatutu hauetan finkatzen den moduan.
- d) Bazkideen ezaugarria izateko Federazioak aukeratzen duen anagrama, ikurra edo sinboloa erabiltzekoa.
- e) Indarra duten Estatutuen ale bat izatekoa eta Federazioko gobernu-organoek hartutako erabakien berri izatekoa.
- f) Beharrezkotzat jotzen denean, Federazioaren kontabilitateari eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazioa izatekoa.
- g) Federazioaren dokumentuen artxibategi eta erregistroak begiratzekoa, eta beharrezkoa denean, haien kopiak eskuratzekoa.

- h) Lehendakariarengana jotzekoa, bazkideak diren aldetik dituzten eskubideak urratuak izan direla uste dutenean erabakiei egin diezazkieketen inpugnazioak ezertan ukatu gabe.
- i) Federazioak eratzen dituen zerbitzuak erabiltzekoa, berak finkatutako baldintzen arabera.
- j) Dituen baliabideekin burutu ditzakeen kudeaketa batzuk Federazioaren eskuetan uztea.

17. ARTIKULUA

Entitate elkartu guztien betebeharrak ondoko hauek dira:

- a) Indarra duten Estatuetan biltzen diren xedapen guztiak eta Batzar Nagusiak eta Batzorde Exekutiboak hartzen dituzten baliozko erabakiei men egitea.
- b) Federazioaren urteko kuotak ordaintzea. Horretarako, Toki Entitate elkartuek baimena ematen diote Nafarroako Gobernuari haien aldeko transferentzia arruntetatik Federazioaren urteko kuoten zenbatekoa hartu eta Federazioari emateko, horrek eskatzen baldin badu.
- c) Batzar Nagusiak finkatzen dituen diru ekarpen bereziak ordaintzea.
- d) Emandako zerbitzu edo burututako kudeaketengatik Federazioak egiten dituen likidazioak ordaintzea.
- e) 1. Bere ikerketa eta iharduerak burutzeko edo eskatu duten beste Entitate elkartuetara igortzeko, Federazioak eskatzen duen informazio guztia ematea.
2. Entitate Elkartuek ez daude behartuak Estatuaren segurtasuna eta babesa, delituen ikerketa edo pertsonen intimitatea ukitzen dituzten gaien inguruko informazioa ematera.
3. Entitate Elkartuek ahalmena ematen diote Federazioari edozein Erakunde edo Organismo Publikotatik, edo haien menpeko Entitateetatik beraiei buruz duten edozein informazioa eskuratzeko, aurreko atalean aipatzen dena salbu.
- f) Bakoitzak dituen baliabideekin, Federazioari laguntza ematea Entitate Elkartu bakoitzaren esparruan hark antolatzen dituen ihardueretan.

18. ARTIKULUA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko bazkide izateak berekin dakar eragin esparru bakarra Nafarroako Foru Komunitatearena eta antzeko helburuak dituzten beste entitateei atxikitzeko ezintasuna.

V. ATALBURUA: ATAL ETA BATZORDEAK

19. ARTIKULUA

Batzarraren erabakiaz, Federazioak atal batzuk sortu ahalko ditu bere barnean, arazo berdinak dituzten Toki Entitateak biltzeko; atalak lurralde edo eskualdeen arabera ere izan ahalko dira.

20. ARTIKULUA

1.- Lurraldeko Atalen helburua Federazioaren ihardunbidea deszentralizatu eta dagokien eskualdeko arazoez arduratzea da.

2.- Batzar Nagusiak sortu ahalko ditu Lurraldeko Atalak, dagokien lurraldean dauden Toki Entitateen heren batek hala proposatzen badio.

3.- Haiek arautzeko erregelamendua, dagokien Atalak proposatu eta Batzorde Exekutiboak onetsiko du eta Lehendakari bat izanen dute, Batzorde Exekutiboaren Bilkuretan hitza izateko eskubidea izanen duena.

21. ARTIKULUA

Amankomuneko arazo espezifikoko batzuk dituzten Toki Entitateek sortutako atalei ere, aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

22. ARTIKULUA

1.- Batzorde Exekutiboak batzorde sektorial eta ponentzia bereziak sortu ahalko ditu udalen arloko sektore edo gai zehatzak ikertu eta lantzeko.

2.- Federazioan elkartutako Entitate guztiek parte hartzerik izanen dute Batzorde eta Ponentzietan, eta haien barruan bat iraukorra eratu ahalko da.

3.- Batzorde edo Ponentzia bakoitzak Lehendakari bat izendatuko du bere kideen artean eta Batzorde Exekutiboak delegatzen dizkion erabaki-ahalmenak izanen ditu.

VI. TITULUA: EGITURA ORGANIKOA

I. KAPITULUA: GOBERNU ORGANOAK

23. ARTIKULUA

Federazioaren Gobernu Organoak ondoko hauek dira:

- Batzar Nagusia,
- Batzorde Exekutiboa
- Lehendakaria eta Lehendakariordea,
- Idazkaritza Nagusia.

II. KAPITULUA: BATZAR NAGUSIA

24. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusia Toki Entitate Elkartu guztien ordezkariak osatua dago. Toki Entitate bakoitzaren Lehendakariak edo honek idatziz delegatutako pertsonak ordezkatu du bere Entitatea.

2.- Toki Entitate Elkartuen ordezkari guztiek Batzar Nagusian hitza eta botoa emateko eskubidea izanen dute.

3.- Entitate bakoitzari dagozkion botoen kopurua Entitate horretako biztanleen kopuruaren arabera izanen da, ondoren azaltzen den bezala:

a) Udal eta Kontzejuak:

1.000 biztanle bitartekoak	Boto 1
1.001 - 2000	4 boto
2.001 - 3.000	8 boto
3.001 - 5.000	2 boto
5.001 - 10.000	16 boto
10.001 - 20.000	25 boto
20.001 - 30.000	35 boto
Iruña	95 boto

Biztanleen kopurua, onetsitako azken errolda-berrikuntzan Udal edo Kontzeju bakoitzak duen zuzenbidezko populazioaren arabera kalkulatu da.

b) Bestelako Toki Entitateak, boto bana.

4.- Toki Entitate baten ordezkari bakoitzari boto bat dagokio Batzarrean.

25. ARTIKULUA

Batzar Nagusia arrunta eta berezia izan ahal da.

Batzar arrunta urtean behin bilduko da, eta Lehendakariak eginen du horretarako deia, gutxienez hamabost egun natural aurretik.

Batzar Berezia eginen da Batzorde Exekutiboak komenigarritzat jotzen duenean edo Elkartutako Entitateen hamarrenak idatziz hala eskatzen duenean. Deialdia aurreko atalean ezarritako alde aurreko epearekin eginen da, eta beti ere, batzarra hura egiteko eskatu eta ondoko hiru hilabeteetan bilduko da.

Bilkura berezietan deialdiko Eguneko Gai zerrendan sartuta dauden aferetaz mintatu eta erabakiko dira, eta ez besterik. Batzorde Exekutiboak arazo larriak daudela uste baldin badu, Lehendakariak Batzarrerako deia egin ahal izanen du gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago.

26. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusia osatzeko, beharrezkoa izanen da 24. artikuluan ezarritakoaren arabera Federazioaren boto guztien heren bat duten Toki Entitate Elkartuen ordezkariak bertaratzea.

2.- Deialdian finkatutako ordutik ordu erdi bat pasatzen baldin bada aurreko atalean ezarritako quoruma osatu gabe, Batzarra eratutzat emanen da gutxienez Toki Entitate Elkartuen %5 bertaratu bada.

27. ARTIKULUA

Hala Batzar Arruntean nola Berezian, deialdiarekin batera Eguneko Gai Zerrenda igorriko da, Batzorde Exekutiboak onetsia, eta bertan sartuko dira Elkartutako Toki Entitateen %5ek idatziz eskatu dituzten gai guztiak.

28. ARTIKULUA

1.- Erabakiak, oro har, bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira. Gehiengo soil da baiezeko botoak ezezkoak baino gehiago direnean.

2.- Berdinketa gertatzen baldin bada, bigarren bozketa eginen da, eta horretan, hala behar baldin bada, Lehendakariaren kalitateko botoak erabaki ahal izanen du.

29. ARTIKULUA

1.- Ondoren zehazten diren erabakiak hartzeko, beharrezkoa izanen da Federazioaren boto guztien gehiengo absolutua:

- 5. artikuluan aurrikusitako ekarpen bereziak ezartzeko.
- Federazioaren Estatutuak aldatzeko.
- Lehendakari eta Lehendakariordeari kargua kentzeko.
- NUKF beste entitate batzuekin elkartu edo bereizteko.

2.- Gainerako bozketak boto arruntei dagozkie, Federazioaren desgitearen kasuan salbu, hori estatutu hauetako 52. artikuluan azaltzen baita.

30. ARTIKULUA

1.- Bozketa arruntak eskua altxatuz eginen dira, eta boto bat kontatuko da Batzarrean dagoen ordezkari bakoitzeko.

2.- Batzarrean dauden Elkartekideen laurden batek hala eskatzen baldin badu, bozketak izenak aipatuz eginen dira.

3.- Bozketak isilpekoak izanen dira baldin eta Batzarrak hala erabakitzen badu, edozein bazkidek eskatu ondoren. Isilpeko bozketetan boto arruntak konputatuko dira.

31. ARTIKULUA

Batzarren eztabaiden laburpenak, erabaki eta ebazpenak Idazkari Nagusiak idatzi eta gordeko dituen aktetan azalduko dira.

32. ARTIKULUA

Batzar Nagusia zuzentzeko mahai bat egonen da, Lehendakariak, bi Lehendakariordeak eta Idazkari Nagusiak, aholkulari eta fede-emaile lanetan arituko denak, osatua.

33. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusiari dagokio:

- a) Federazioko Lehendakaria, Lehendakariordea eta Idazkaria, hala nola Batzorde Exekutiboko partaideak hautatzea, hogeita hamabostgarren eta hogeita hamaseigarren artikuluetan ezarri den bezala.
- b) Ihardueren urteko plana onestea.
- c) Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontua eta Kontu Orokorrak onestea.
- d) Aparteko diru-ekarpenak egitea erabaki eta haien zenbatekoa finkatzea.
- e) Lurraldeko atalak sortzea onestea.
- f) NUKFaren helbidearen aldaketa berrestea, Batzorde Exekutiboak behin-behinekoz hori erabaki ondotik.
- g) Barne Araudiaren Erregelamendua behin-betiko onestea.
- h) Estatutuak onetsi eta aldatzea.
- i) NUKF beste Elkartean sartu eta ateratzeko erabakia hartzea.
- j) Federazioa deuseztea.
- k) Batzorde Exekutiboak edo Estatutu hauetan ezarri bezala elkartekideek proposaturiko arazoak eztabaidatu eta erabakitzea.

2.- Aurreko atalean adierazitako eskumenak ezin dira Federazioko bestelako organoen kontura utzi.

III. KAPITULUA: BATZORDE EXEKUTIBOA

34. ARTIKULUA

Batzorde Exekutiboak hemeretzi kide izanen ditu gutxienez eta hogeita bost gehienez, Elkartutako Toki Entitateen ordezkarien artean Batzarrak hautatuak.

35. ARTIKULUA

1.- Batzorde Exekutiboko berezko Batzordekideak dira Federazioko Lehendakaria eta Lehendakariordeak, organo horretan ere kargu horiek dituztenak.

2.- Udal Bakunen ordezkariak gutxienez hamar Batzordekide hautatuko dituzte beraien artetik eta ondoren adierazten diren biztanle-kopuruen arabera:

UDAL BAKUNAK

3.000 biztanle baino gutxiago	4 batzordekide
3.000 - 20.000 biztanle	4 batzordekide
20.000 biztanle baino gehiago	2 batzordekide

3.- Udal Konposatuek bi Batzordekide hautatuko dituzte gutxienez, beraien artetik eta ondoren adierazten diren biztanle-kopuruen arabera:

UDAL KONPOSATUAK

500 biztanle baino gutxiago batzordekide 1

500 biztanle baino gehiago batzordekide 1

4.- Kontzejuek bi batzordekide hautatuko dituzte gutxienez, beraien artetik eta ondoren adierazten diren biztanle-kopuruen arabera:

KONTZEJUAK

500 biztanle baino gutxiago batzordekide 1

500 biztanle baino gehiago batzordekide 1

5.- Udal edo Kontzejuak ez diren gainerako Toki Entitate Elkartuek bi batzordekide hautatuko dituzte beraien artetik.

36. ARTIKULUA

1.- Aurreko atalean aipatzen den eran Batzorde Exekutiboko kideak hautatu ondoren, Batzorde Exekutiboan ordezkariarik lortu ez duten Nafarroako Eskualdeetako Toki Entitateek gehienez sei batzordekide gehiago hautatu ahal izanen dute.

2.- Estatutu hauekin batera doan planoan azaltzen diren Eskualdeetatik sei baino gehiago ordezkariarik gabe geratuko balira, ordezkaria hautatzeko eskubidea zeinek duen erabakitzeko, kontutan hartuko litzateke zenbat Entitate dituen Eskualde bakoitzak Federazioari atxikituta.

37. ARTIKULUA

Federazioko karguak hautatzeko sistema eta prozedura, haiek hautatu behar dituen Batzarrak onetsiko ditu.

38. ARTIKULUA

1.- Toki Entitateetako partaide-izaera galtzen duten ordezkariak Federazioko Batzorde Exekutiboan dituzten karguak utziko dituzte automatikoki eta haien ordezkariak berriak jarriko dira.

2.- Batzar Nagusiak karguak kendu ahal izanen dizkie Batzorde Exekutiboko Lehendakariari, Lehendakariordeari eta batzordekideei.

39. ARTIKULUA

Federazioan Toki Entitate batek baja egitetik sor litekeen postu betegabea, leku hori betetzeko aukeratuak izan ez ziren entitateetatik lehenbizikoa gelditu zenaren ordezkariak beteko du.

40. ARTIKULUA

Batzorde Exekutiboa bilkura arruntean bilduko da hilabetean behin eta bilkura berezia eginen du Lehendakariak erabakitzen duen edo batzordekideen heren batek gutxienez eskaera arrazoitua egiten duenean. Deialdia, Eguneko gai-zerrenda eta behar den informazio osagarria bilduko dituen, bilkura egin baino 4 egun lehenago eginen da eta bertan adieraziko da non, zer egun eta zer ordutan eginen den.

41. ARTIKULUA

Erabakiak hartzeko, beharrezkoa izanen da lehenbiziko deialdian Batzordekideen gehiengo absolutua bertan egotea, eta bigarren, lehenbizikoaren ondoren gutxienez ordu erdi bat geroago, gutxienez hiru.

Erabakiak hartu ahal izateko beharrezkoa izanen da bertaratutako edo ordezkaturako kideen gehiengoa. Lehendakariak kalitateko botoa izanen du. Eguneko gai-zerrendan egon gabe, presazko deklarazten diren gai-zerrendako erabakiak hartzeko, beharrezkoa izanen da batzordekideen gehiengo absolutuak aldeko botoa ematea. Lehendakariaren edo hura ordezkaturako duenaren zeregina izanen da Batzordearen bilkurarako deia egin, Eguneko gai-zerrenda osatu eta eztabaidak antolatzea.

42. ARTIKULUA

1.- Batzorde Exekutiboa erabat berrituko da Udalen legezko indarraldia bukatu direlako haiek berritzen direnean eta horretarako, Batzar Nagusirako deia eginen da Udal berriak osatu eta ondoko hiru hilabeteetako epearen barruan.

2.- Udal Bakun edo Konposatuaren ordezkariak ez diren batzordekideak bi urtetan behin berrituko dira, Federazioko Lehendakaria eta Lehendakariordea izan ezik.

43. ARTIKULUA

Batzorde Exekutiboari dagokio:

- a) Federazioaren iharduketa zuzentzea Batzar Nagusien arteko tartetan.
- b) Administrazioaren arloko egiturak ezartzea.
- c) Barne Araudiaren Erregelamenduak onestea.
- d) Batzarrari Idazkari Nagusiaren izendapena proposatzea.
- e) Federaziokideen urteko kuoten zenbatekoa finkatzea. Batzorde Sektorial eta Ponentzia bereziak sortu eta Lurraldeko Ataletako barne araudiaren erregelamenduak onestea.
- f) Batzar Nagusiaren erabakiak prestatu eta betetzea.
- g) Ondarea administratzea.
- h) Argitalpenen helburua finkatu eta haien Erredakzio Kontseilukideak izendatzea.
- i) Zerbitzu eta aurrekontuen kudeaketa zuzentzea.
- j) Botere publiko eta bestelako erakundeekin harremanak ezartzea.
- k) Ikerketak zuzentzea.
- l) Batzar Nagusiaren Eguneko gai-zerrenda onestea.
- m) Kide berriak onartzea.
- n) Federazioaren helburuak erdiesteko behar diren helegite eta egintzak burutzea.

44. ARTIKULUA

1.- Batzorde Exekutiboak Batzorde Iraunkor bat osatu ahal izanen du bere barnean, bere kideen artean libreki hautatutako gehienez bederatzi kidez osatua eta Federazioaren Lehendakariaren zuzendaritzapean egonen dena.

2.- Batzorde hau hilabetean behin bilduko da gutxienez eta, Batzordearen delegazio inplizituaz, aurreko artikuluko f) eta m) arteko ataletan, biak barne, aipaturako eskumenak bere gain hartuko ditu.

3.- Haren funtzionamendu, osaera eta abarri dagokioenean, Batzorde Exekutiboari buruz ezarritakoa aplikatuko zaio.

44. BIS ARTIKULUA

1.- Federazioko Lehendakaria izanen da hura hautatzeko lehenbiziko bozketa batean Federazioaren botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen Toki Entitate Elkartuko Burua.

Toki Entitate Elkartuetako Buruek aurreko lerroaldean aipatutako gehiengo lortuko ez balute, bigarren bozketa eginen litzateke eta honetan Lehendakari hautatuko litzateke Batzarrean emandako botoen gehiengo soilaren erdiesten duena.

Berdinketa suertatuko balitz, biztanle kopuru handiena duen Toki Entitatearen alde jotuko litzateke.

2.- Lehendakariordeak izanen dira Lehendakaria hautatzeko bozketan Lehendakariaren ondoren boto gehienak lortu dituzten Toki Entitateetako Buruak. Lehendakariordearen karguak beteko ez balira aurreko lerroaldean adierazitako bidearen bitartez, boto arrunten gehiengo soilaz hautatuko lirateke.

3.- Lehendakariordeek bere gain hartuko dituzte Lehendakariaren eginkizunak haren kargua betegabe gelditzen baldin bada eta hura kanpoan edo eri dagoenean, hautatu ziren hurrenkeraren arabera.

IV. KAPITULUA: LEHENDAKARIA

45. ARTIKULUA

Federazioko Lehendakariak, Batzorde Exekutibokoa eta, halakorik balego, Iraunkorrekoa ere izanen denak, Erakundea pertsonalizatu eta ordezkatzeko du eta ondoko eginkizun hauek izanen ditu:

- Federazioaren legezko ordezkariak.
- Batzar Nagusiaren, Batzorde Exekutibo eta Iraunkorren Bilkurak deitu, eta zuzentzea, eta, berdinketa suertatuz gero, kalitateko botoarekin erabakitzea.
- Presakako kasuetan egintza juridiko eta administratiboak burutzea.
- Ordainketak egiteko agindua ematea.
- Federazioaren zerbitzuak eta ihardunbidea zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea, Batzarraren eta Batzorde Exekutiboaren erabakiei jarraikiz.
- Batzorde Exekutiboaren erabakiak, eta, hala behar baldin bada, Batzarrarenak betetzea.
- Presakako kasuetan, Batzorde Exekutiboaren esparruko gaiei buruzko erabakiak hartzea, gero, baliodunak izan daitezen, egiten den lehenbiziko Bilkuran hark berretsi eginen dituztenak.
- Beste organo bati esleitu ez zaion beste edozein iharduketa.

46. ARTIKULUA

1.- Lehendakari eta Lehendakariordeen agintaldiek, ordezkatzeko dituzten Udalen legezko iraupen berbera izanen dute, eta berriz hautatuak izan ahalko dira.

2.- Bere agintaldian, Lehendakariak bere kargua utziko du ondoko kausa hauengatik:

- Borondatezko dimisioa, Idazkaritza Nagusira idatziz jakinaraziko diona.
- Ordezkatzeko duen Toki Entitateko kide-izaera galtzea edo horrek Federazioan baja egitea.
- Federazioa osatzen duten Toki Entitateen gehiengo absolutuak kargua kentzea.

3.- Lehendakariak kargua utzi ondoko hiru hilabeteetan hauteskunde berria eginen da.

Lehendakariordetzetan gerta litezkeen betegabeak, Batzorde Exekutiboak finkatu bezala beteko dira.

V. KAPITULUA: IDAZKARITZA NAGUSIA

47. ARTIKULUA

1.- Federazioaren zerbitzuen funtzionamendua zuzenean bermatu eta Elkartearen ihardunbidea errazteko, Batzar Nagusiak Idazkari Nagusi bat izendatuko du, Batzorde Exekutiboaren proposamenaz.

2.- Idazkari Nagusia Lehendakariaren eta Batzorde Exekutiboaren menpean egon da.

48. ARTIKULUA

Idazkari Nagusiak ondoko eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Federazioaren zerbitzu tekniko eta administratiboak zuzentzea.
- b) Lehendakariaren aginduz, Batzorde Exekutiboaren, Lurraldeko Atalen edo Batzorde eta Ponentzia Sektorialen bileretarako deia egitea.
- c) Lehendakariaren zuzendaritzapean, Federazioko organoen bilkuretako Eguneko gai-zerrenda eta dokumentazioa prestatu eta bilera horien aktak egitea.
- d) Dokumentazioaren artxibatze eta erregistroa agindu eta zaintzea.
- e) Federazioaren zerbitzuak osatzen duen langileriaren zuzendaritza.
- f) Merkataritza eta ekonomia arloetako barne trafikoan Entitatea ordezkatzeko.
- g) Lehendakariak haren kargura uzten dituen gainerako eginkizunak.

49. ARTIKULUA

1.- Idazkari Nagusiaren agintaldiaren iraupena, hura izendatu zuten Udarena bera izanen da, eta berriz izendatzeko aukera izanen da.

2.- Idazkari Nagusiak kargua utziko du ondoren azaltzen diren kausa hauetako batengatik:

- a) Dimisioa, Lehendakariari jakinaraziko zaiona.
- b) Batzar Nagusiak kargua kentzen dionean, Lehendakariaren edo Batzorde Exekutiboaren proposamenaz.

3.- Betegabe geratzen denean, Idazkaritza Nagusia behin-behinekoz beteko du Federazioko zerbitzu teknikoetako kide batek, Lehendakariak izendatuak.

VII. ATALBURUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA

50. ARTIKULUA

1.- Federazioko dirusarrerak ondoko jatorri hauetatik heldu dira:

- Kuota arruntak
- Aparteko ekarpenak.
- Dirulaguntzak, transferentziak eta hobariak.
- Bere iharduera, zerbitzu eta argitalpenen etekinak.
- Ondarearen produktuak.

2.- Kuotak urtekoak izanen dira eta Batzorde Exekutiboak finkatuko ditu elkartutako Entitatearen biztanleriaren, haren motaren edo haren Aurrekontu Arrunten arabera. Gutxieneko diru-ekarpen batzuk finkatu ahalko dira Entitate bakoitzeko.

VIII. ATALBURUA: ESTATUTUEN ALDAKETA

51. ARTIKULUA

1.- Estatutuak aldatu ahal izateko, beharrezkoa izanen da Federazioko Batzarraren boto ponderatu guztien erdia eta bat gehiago, 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2.- Aldaketa hori horretarako deitzen den Batzar Nagusi batean onetsiko da.

IX. ATALBURUA: FEDERAZIOAREN DEUSEZTAPENA:

52. ARTIKULUA

NUKF deuseztatzeko, beharrezkoa izanen da horretarako egiten den Aparteko Batzar batean Toki Entitate elkartuetako ordezkarien bi herenek, Entitateei dagozkien boto ponderatu guztien bi heren dituztenek, erabaki hori hartzea.

53. ARTIKULUA

1.- Deuseztapen kasuan, hura erabakitzen duen Batzar Nagusiak Batzorde Likidatzaile bat osatuko du, gehienez bost partaiderekin.

2.- Batzorde likidatzaileak bere gain hartuko ditu Federazioaren Ondarea eta fondoak, eta zorrak ordaindu ondoren dirurik sobratuko balitz, antzeko beste erakunde bati edo onegintzarako bestelako elkarte kultural bati emanen zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

1.- Hauteskundeen ondoren Udal berriak osatu eta gero, berritu diren Toki Entitateen ordezkari guztiek kargua utziko dute.

2.- Batzar Nagusia egin arte, hautatu berriek Toki Entitate bakoitzaren aurreko ordezkariak utzitako karguak hartuko dituzte Batzorde kudeatzaile bat osatuz.

3.- Idazkari Nagusiak bere karguan segituko du Batzarrak berria hautatu arte, Estatutu hauetako 49.1 artikuluan ezarritako epa bukatzen bada ere

XEDAPEN IRAGANKORRA

Estatutu hauetako 23. artikuluan azaltzen diren gobernu organoetako gaurko kideek beren karguetan segituko dute, udal edo kontzejuetako hauteskundeak egin edo ordezkatzan dituzten Toki Entitateetako partaide izaera galdu arte.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek automatikoki aldatutzat emanen dira Toki Araubidearen Oinarriak Erregulatzeko Legeko bostgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa garatzeko ematen diren arau espezifikoek kontra duten guztian

1. IRUÑEKO ESKULDEA

16 ANTSOAIN
23 ARANGUREN
25 ARAKIL
60 BURLATA
75 ZIRITZA
76 CIZUR
83 ETXARRI
85 ETXAURI
86 EGUESIBAR
88 NOAIN (ELORTZIBAR)
101 EZCABARTE
109 GALAR
118 GOÑI
122 UHARTE
131 ITZA
136 JUSLAPEÑA
188 OLAIBAR
193 OLTZA ZENDEA
194 OLLARAN
201 IRUÑA
253 BIDAURRETA
258 ATARRABIA
262 ZABALTZA
901 BARAÑAIN
902 BERRIOBEITI
903 BERRIOZAR
904 IRURTZUN
905 BERIAIN
906 ORKOIEN
907 ZIZUR NAGUSIA

2. TUTERAKO ESKUALDEA

6 ABLITAS
32 ARGUEDAS
48 BARILLAS
57 BUÑUEL
62 CABANILLAS
64 CADREITA
68 CASCANTE
70 CASTEJON
72 CINTRUENIGO
77 CORELLA
78 CORTES
105 FITERO
106 FONTELLAS
108 FUSTIÑANA
169 MILAGRO
173 MONTEAGUDO
176 MURCHANTE
208 RIBAFORADA
232 TUDELA
233 TULEBRAS
249 VALTIERRA
254 VILAFRANCA

3. TAFALLAKO ESKUALDEA

38 ARTAJONA
45 BARASOAIN
51 BEIRE
114 GARINOAIN
150 LEOTZ
151 LERGA
191 OLITE
192 OLORITZ
197 ORISOAIN
205 PITILLAS
207 PUEYO
217 SAN MARTIN DE UNX
227 TAFALLA
235 UXUE
238 UNTZUE

4. LIZARRAKO ESKUALDEA

1 ABAIGAR
2 ABARTZUZA
5 ABERIN
11 ALLIN
12 ALLO
13 AMESCOA BAJA
14 ANTZIN
21 ARANARATXE
29 LOS ARCOS
30 ARELLANO
36 ARRONIZ
41 AIEGI
46 BARBARIN
74 ZIRAUKI
80 DICASTILLO
97 ESTELLA-LIZARRA
99 ETAYO
100 EULATE
120 GESALATZ
125 IGUZQUIZA
139 LANA
143 LARRAONA
148 LEGARIA
154 LEZAUN
160 LUQUIN
166 MENDAZA
168 METAUTEN
170 MIRAFUENTES
174 MORENTIN
175 MUES
177 MURIETA
182 NAZAR
184 OCO
190 OLEJUA
200 OTEIZA
204 PIEDRAMILLERA
214 JAITZ
225 SORLADA
255 VILLAMAYOR DE
MONJARDIN
257 VILLATUERTA
260 DEIERRI
265 ZUÑIGA

**5. EBROKO ERRIBERA
GARAIA ESKUALDEA**

15 ANDOSILLA
42 AZAGRA
66 CARCAR
152 LERIN
157 LODOSA
165 MENDAVIA
215 SAN ADRIAN
223 SARTAGUDA
224 SESMA

**6. ARGARAGON
ERRIBERA BEHEREA
ESKUALDEA**

53 BERBINZANA
65 CAPARROSO
67 CARCASTILLO
104 FALCES
107 FUNES
142 LARRAGA
163 MARCILLA
164 MELIDA
167 MENDIGORRIA
171 MIRANDA DE ARGARAGON
178 MURILLO EL CUENDE
179 MURILLO EL FRUTO
202 AZKOIEN
220 SANTACARA

7. ZANGOZAKO ESKUALDEA

9 OIBAR
69 CASEDA
94 ESLAVA
103 EZPROGUI
110 GALIPENTZU
135 JAVIER
146 LEATXE
155 LIEDENA
203 PETILLA DE ARAGON
212 SADA
216 ZANGOZA
261 YESA

8. GARESKO ESKUALDEA

7 ADIOS
18 AÑORBE
39 ARTAZU
52 BELASCOAIN
56 BIURRUN OLCOZ
89 ENERITZ
121 GUIRGUILLANO
147 LEGARDA
161 MAÑERU
180 MURUZABAL
183 OBANOS
206 GARES
228 TIEBAS-MURUARTE DE
RETA
229 TIRAPU
234 UCAR
246 UTERGA

9. BAZTANGO ESKUALDEA

50 BAZTAN
239 URDAX/URDAZUBI
264 ZUGARRAMURDI

10. VIANAKO ESKUALDEA

8 AGUILAR DE CODES
26 ARAS
35 ARMAÑANZAS
43 AZUELO
47 BARGOTA
61 EL BUSTO
63 CABREDO
79 DESOJO
96 ESPRONCEDA
116 GENEVILLA
141 LAPOBLACION
145 LAZAGURRIA
162 MARAÑON
219 SANSOL
230 TORRALBA DEL RIO
231 TORRES DEL RIO
251 VIANA

**11. BIDASOA-MUGA
ESKUALDEA**

22 ARANTZA
82 ETXALAR
153 LESAKA
250 BERA
259 IGANTZI

12. AGOIZKO ESKUALDEA

19 AGOITZ
124 IBARGOITI
132 IZAGAONDOA
156 LIZOAIN-ARRIASGOITI
158 LONGIDA
172 ELO
237 UNCITI
243 URROZ-VILLA

13. IRUNBERRIKO**ESKUALDEA**

159 LUMBIER
209 ROMANZADO
241 URRAUL ALTO
242 URRAUL BAJO

14. SAKANA ESKUALDEA

10 ALTSASU/ALSASUA
27 ARBIZU
37 ARRUAZU
44 BAKAIKU
73 ZIORDIA
84 ETXARRI ARANATZ
91 ERGOIENA
123 UHARTE ARAKIL
127 IRAÑETA
130 ITURMENDI
138 LAKUNTZA
189 OLAZTI/OLAZAGUTIA
240 URDIAIN

15. LARRAUNGO**ESKUALDEA**

20 ARAITZ
24 ARANO
31 ARESO
55 BETELU
117 GOIZUETA
144 LARRAUN
149 LEITZA
908 LEKUNBERRI

16. MENDEBALDEKO**PIRINIOKO ESKUALDEA**

3 ABAURREGAINA
/ABAURREA ALTA
4 ABAURREPEA/A
BAURREPEA BAJA
28 ARTZI/ARCE
33 ARIA
34 ARIBE
58 AURITZ/BURGUETE
92 ERRO
98 ESTERIBAR
112 GARAIOA
115 GARRALDA
195 ORBAIZETA
196 ORBARA
199 OROTZ-BETELU
211 ORREAGA/RONCESVALLES
248 LUZAIDE/VALCARLOS
256 HIRIBERRI/VILLANUEVA
AEZKOA

17. ERRONKARI-ZARAITZU**ESKUALDEA**

59 BURGI
71 CASTILLONUEVO
93 EZKAROZE
95 ESPARTZA ZARAITZU
111 GALOZE
113 GARDE
119 GORZA
128 IZABA
133 ITZALTZU
134 JAURRIETA
181 NABASKOZE
185 OTSAGABIA
198 ORONTZE
210 ERRONKARI
222 SARTZE
245 URZAINKI
247 UZTARROZE
252 BIDANKOZE

18. ULTZAMAKO**ESKUALDEA**

17 ANUE
40 ATETZ
49 BASABURUA
126 IMOTZ
140 LANTZ
186 ODIETA
236 ULTZAMA

19. BIDASOA ERDIKO**ESKUALDEA**

54 BERTIZARANA
81 DONAMARIA
87 ELGORRIAGA
90 ERATSUN
102 EZKURRA
129 ITUREN
137 BEINTZA-LABAIEN
187 OIZ
213 SALDIAS
221 DONEZTEBE/SANTESTEBAN
226 SUNBILLA
244 URROZ
263 ZUBIETA